begirada

76

maiatza
2020

Photo by Orlando Imperatore, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Desaturated and cropped from original

Lege gordailua BI-1163-05

ikus pegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Departamento de Empleo y Políticas Sociales
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar y Diversidad

ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEAK EAE-N 2020

Begirada honetan, 2020ko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko biztanleen datuak aurkezten ditugu, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) argitaratutako errolda jarraituaren behin-behineko aurrerapenaren arabera. Hala, eguneratuta geratzen dira 2019ko maiatzeko 73. begiradako datuak.

EAEranzko migrazio-prozesuaren ziklo berriak lehengo berean jarraitzen du, eta atzerrian jaiotakoen kopurua 241.193 pertsonakoa da 2020ko urtarrilaren 1ean. Dena den, esan beharrekoa da begirada honetan ordura arteko migrazio-errealitatea aztertzen dela, eta beraz, ez direla islatzen oraingo pandemiak migrazio-fluxuetan izan ditzakeen ondorioak.

Euskal Autonomia Erkidegoan –aurrerantzean, EAE–, 2020ko urtarrilaren 1ean, guztira 2.219.777 pertsona zeuden erroldatuta, eta horietatik 241.193 atzerriko herrialderen batean jaioak dira; biztanleria guztiaren % 10,9, beraz. Aurreko urtean baino 19.201 pertsona gehiago dira horiek; orduan, atzerritar jatorriko biztanleak 221.992 ziren, biztanleria guztiaren % 10,1 –1. grafikoa–.

1. grafikoa.

EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak (absolutuak eta %), 1998-2020 aldian



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Lurralde historikoen arabera –1. taula–, pertsona horietatik gehienak Bizkaian bizi dira (% 49,5); hurrengo lurraldea Gipuzkoa da (% 32,9), eta azkena, Araba (% 17,7). Alde horretatik, ohartzekoa da atzerritar jatorriko biztanleak bertakoak bezala edo antzera daudela banatuta, nahiz eta Araban ehunekoa handixeagoa den, eta Bizkaian, berriz, txikixeagoa.

Estatu osoko datuekin alderatuta, EAE batezbestekoaren azpitik dago atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoan (% 15,2), eta zenbait erkidegotako ehunekotik oso urrun; adibidez, Madrilgo Erkidegoan ehunekoa % 20,4 da, eta Mediterraneo ertzeko erkidegoetan, berriz, Balear Uharteetan eta Katalunian, esaterako, % 24,1 eta % 20,4, hurrenez hurren.

1. taula.

EAEko biztanleria guztia, bertakoa nahiz atzerritar jatorrikoa, lurralde historikoen arabera, 2020an

	Biztanleria guztia	Bertako biztanleria	Atzerritar jatorriko biztanleria				Biztanleriaren banaketa lurralde historikoen arabera (%)		
			Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakum. %	Bizt. guztira	Bertako biztanleria	Atzerrian jaiotako biztanleria
Araba	333.852	291.235	42.617	21.752	20.865	51,0	15,0	14,7	17,7
Bizkaia	1.159.046	1.039.715	119.331	63.362	55.969	53,1	52,2	52,5	49,5
Gipuzkoa	726.879	647.634	79.245	41.521	37.724	52,4	32,7	32,7	32,9
EAE	2.219.777	1.978.584	241.193	126.635	114.558	52,5	100,0	100,0	100,0

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

2. grafikoa.

Atzerritar jatorriko biztanleen kopurua, ehunekotan, autonomia-erkidegoaren arabera, eta 2019ko datuekiko aldea



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

EAEra iristeko prozesuari erreparatzen badiogu, hiru etapa aski bereizi ikus ditzakegu –3. grafikoa–. 1998tik 2008ra, EAEranzko migrazio-fluxuak handitu egin ziren, orduko hazkunde ekonomikoaren ondorioz. Krisi ekonomikoa gertatu zenean, hark eragindako zailtasunen ondorioz, EAEra etorritakoen kopurua nabarmen txikitu zen; etapa hori 2009an hasi, eta 2013-2014. urteetaraino luzatu zen. Azken urteotan, EAEranzko migrazio-fluxuak berriro suspertu dira: 2019an 19.201 pertsona etorri dira EAEra, eta atzeraldi ekonomikoa baino lehenagoko kopuru bertsuetan gaude orain.

Oro har, atzerritar jatorriko biztanleriak eragin positiboa izan du EAEko azken urteotako dinamika demografikoetan –2. taula–. 1998tik 2020ko urtarrilaren 1a arte atzerrian jaiotako 219.029 pertsona etorri dira erkidegora, eta bertan jaiotakoen biztanleria-galera (93.710 pertsona gutxiago) orekatu du horrek. Horri esker, EAEko biztanleria 125.319 pertsonatan handitu da 1998tik gaur arte.

2. taula.

EAEko biztanleria guztia, bertakoa nahiz atzerritar jatorrikoa. Hazkundea 1998-2020 eta 2019-2020 aldietan (absolutuak)

	HAZKUNDEA (absolutuak)	
	1998-2020	2019-2020
Bertako biztanleria	-93.710	-7.200
Atzerritar jatorriko biztanleria	219.029	19.201
Biztanleria guztia	125.319	12.001

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

3. grafikoa.

Atzerritar jatorriko eta bertako biztanleriaren urtetik urterako hazkunde absolutua EAEn, 1998-2020 aldian



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Arretaz aztertzen badugu atzerritar jatorriko biztanleen eta atzerriko nazionalitatea dutenen arteko erlazioa –4. grafikoa–, kolektibo horretan nazionalizazio-prozesuak nolako bilakaera izan duen ikusiko dugu. Krisi ekonomikoaren garaian, EAEranzko migrazio-zikloak murriztu egin zireneko testuinguru hartan, nazionalizatu ziren pertsonen kopurua handitu egin zen atzerriko nazionalitateari eutsi ziotenen aldean.

Azken urteotan, atzerriko nazionalitatea dutenen kopurua berriro handitu da (kolektibo horren guztizkoa kontuan hartuz), migrazio-fluxuak berriro suspertu direlako nagusiki, eta Estatuan jaio arren gurasoen jatorrizko nazionalitateari eusten diotenengatik, bestetik. Horren guztiaren ondorioz, urtarrilaren 1ean, atzerrian jaiotako pertsonen laurdenak zuen espainiar nazionalitatea (% 25,5).

4. grafikoa.

Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen eta atzerrian jaiotako biztanleen bilakaera EAEn, 2008-2020 aldian (%)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Atzerritar jatorriko hamar pertsonatik erdiak baino gehiago Latinoamerikako herrialderen batean jaio dira (% 51,1)

Bilakaera jatorri-eremu nagusien arabera aztertuz gero –5. grafikoa–, nabaria da EAEranzko migrazio-fluxuen askotarikotasuna. 2020ko urtarrilaren 1ean, EAEn bizi eta atzerrian jaioak diren pertsonen erdia baino gehiago Latinoamerikako herrialderen batetik etorriak dira (% 51,1), % 16,2 Europar Batasuneko herrialderen batean jaio dira, eta % 14, Magreben. Urteen joanean, jatorrizko herrialdeen pisua aldatuz joan da, baina Latinoamerikak jarraitzen du izaten jatorri nagusia. Desberdintasun horien zergatia euskal gizartean bilatu behar dugu, eskatzen dituen profiletan nagusi baitira zerbitzu-sektorearekin, etxe-zerbitzuarekin eta zaintzarekin lotutakoak.

5. grafikoa.

Atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera, eremu geografikoen arabera, EAEn, 1998-2018 aldia (%)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Datuak xeheago aztertzen baditugu, ikus daiteke azken urte honetan EAEra etorri diren atzerritar jatorriko 19.201 pertsonetatik gehienak Latinoamerikako herrialderen batetik etorri direla (% 72,5). Horien ondoren datoz, hurrenez hurren, Magrebetik etorriak (% 14,4), Asiatik etorriak (% 4,8) eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorriak (% 4,7). Beraz, azken urteotan ikusten ari garen joera finkatzen ari dela nabari da: Amerikatik datozen migrazio-fluxuak suspertzen ari dira, EAEko susperraldi ekonomikoa dela eta. Era berean, nabarmendu behar da Latinoamerikako fluxuak feminizatuta daudela, eta azken urtean iritsi diren jatorri latinoamerikarreko 13.918 pertsonetatik 8.040 emakumeak direla (% 57,8).

6. grafikoan, jatorri-eremuek nolako bilakaera izan duten ikus dezakegu. 1999tik 2008ra bitartean, Latinoamerika eta Europar Batasuna hazi ziren gehien. 2009tik aurrera, atzerritar jatorriko biztanleriaren hazkundea nabarmen moteldu zen, nahiz eta Magrebetik etorritakoen kopuruak hazten jarraitu zuen krisi ekonomikoko lehenbiziko urteetan. 2014tik aurrera, migrazio-fluxuak berriro hazten hasi ziren, gaur egun arte, eta aldi horretan Latinoamerika izan da jatorri-eremu nagusia.

3. taula.

Jatorri-eremu nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera, sexuaren arabera, 2019-2020 aldian

	Guztira		Gizonak	Emakumeak	
	Hazkundea	%	K	K	%
Europa guztira	505	2,6	276	229	45,3
Magreb	2.767	14,4	1.811	956	34,6
Gainerako Afrika	911	4,7	691	220	24,1
AEB eta Kanada	152	0,8	88	64	42,1
Latinoamerika	13.918	72,5	5.878	8.040	57,8
Asia	914	4,8	530	384	42,0
Ozeania	34	0,2	25	9	26,5
Guztira	19.201	100,0	9.299	9.902	51,6

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

6. grafikoa.

Jatorri-eremu nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera, 1999-2020 aldian (absolutuak)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Pertsona horien jatorrizko herrialdeari dagokionez –4. taula–, Maroko, Kolonbia eta Errumania dira herrialde nagusiak. Jatorrizko herrialdeetan hamar nagusiak zein diren begiratuz gero, hauxe ikus dezakegu: zortzi herrialde Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Ekuador, Paraguai, Honduras eta Brasil); herrialde bat, Afrikakoa (Maroko), eta beste bat, EBkoa (Errumania). Hamar herrialde horietakoak dira EAEra bizitzera etorri diren atzerritar jatorriko pertsonen erdia baino gehiago.

4. taula.

Jatorrizko hamar herrialde nagusiak EAEn eta lurralde historikoetan (absolutuak eta %), 2020an

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
		K	%		K	%		K	%		K	%
1	Maroko	27.303	11,3	Maroko	6.642	15,6	Kolonbia	13.891	11,6	Maroko	9.103	11,5
2	Kolonbia	25.906	10,7	Kolonbia	6.258	14,7	Maroko	11.558	9,7	Nikaragua	7.215	9,1
3	Errumania	15.882	6,6	Aljeria	2.281	5,4	Bolivia	9.764	8,2	Kolonbia	5.757	7,3
4	Nikaragua	14.190	5,9	Pakistan	1.565	3,7	Errumania	9.448	7,9	Errumania	5.036	6,4
5	Bolivia	12.101	5,0	Brasil	1.537	3,6	Nikaragua	6.583	5,5	Honduras	4.953	6,3
6	Venezuela	9.611	4,0	Ekuador	1.513	3,6	Venezuela	5.985	5,0	Ekuador	3.513	4,4
7	Ekuador	8.869	3,7	Peru	1.497	3,5	Paraguai	5.803	4,9	Portugal	3.233	4,1
8	Paraguai	7.766	3,2	Paraguai	1.463	3,4	Ekuador	3.843	3,2	Argentina	2.754	3,5
9	Honduras	7.698	3,2	Nigeria	1.441	3,4	Brasil	3.615	3,0	Frantzia	2.718	3,4
10	Brasil	7.199	3,0	Errumania	1.398	3,3	Txina	3.525	3,0	Pakistan	2.283	2,9
	Guztira 10	136.525	56,6	Guztira 10	25.595	60,1	Guztira 10	74.015	62,0	Guztira 10	46.565	58,8
	Gainerakoak	104.668	43,4	Gainerakoak	17.022	39,9	Gainerakoak	45.316	38,0	Gainerakoak	32.680	41,2
	Guztira	241.193	100,0	Guztira	42.617	100,0	Guztira	119.331	100,0	Guztira	79.245	100,0

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Azken urtean izandako gorakadari dagokionez –5. taula–, gehien hazi diren herrialdeak Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Nikaragua, Venezuela, Honduras, Peru, Paraguai, Argentina eta Bolivia). Horiei, bestalde, Marokok eta Pakistanek izandako gorakada gehitu behar zaie.

Lurralde historikoen arabera, aurreko urteetako joerak berdintsu jarraitzen du. Araban, gehien handitu den jatorria Kolonbia izan da, eta haren ondoren, Maroko, Venezuela eta Peru. Bizkaian, Kolonbia, Nikaragua, Maroko eta Venezuela handitu dira gehien, beste jatorrietatik alde handiz. Gipuzkoan, berriz, Nikaragua handitu da gehien, eta Kolonbia, Maroko eta Honduras ere handitu dira.

2020an Euskadira iritsi diren pertsona gehienak Latinoamerikako herrialderen batetik etorri dira (% 72,5)

5. taula.

Azken urtean lurralde historiko bakoitzean eta EAEn gehien handitu diren jatorriak (absolutuak), 2020

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
		K	%		K	%		K	%		K	%
1	Kolonbia	3.782	19,7	Kolonbia	862	32,5	Kolonbia	2.065	19,2	Nikaragua	1.218	21,1
2	Nikaragua	3.035	15,8	Maroko	382	14,4	Nikaragua	1.750	16,2	Kolonbia	855	14,8
3	Maroko	2.436	12,7	Venezuela	305	11,5	Maroko	1.299	12,1	Maroko	755	13,1
4	Venezuela	1.865	9,7	Peru	181	6,8	Venezuela	1.227	11,4	Honduras	671	11,6
5	Honduras	1.191	6,2	Paraguai	105	4,0	Paraguai	549	5,1	Venezuela	333	5,8
6	Peru	828	4,3	Aljeria	100	3,8	Honduras	477	4,4	Peru	238	4,1
7	Paraguai	704	3,7	Brasil	91	3,4	Peru	409	3,8	Argentina	225	3,9
8	Argentina	520	2,7	Pakistan	79	3,0	Bolivia	344	3,2	Brasil	143	2,5
9	Pakistan	448	2,3	Nikaragua	67	2,5	Pakistan	258	2,4	Pakistan	111	1,9
10	Bolivia	395	2,1	Argentina	64	2,4	Senegal	252	2,3	Kuba	99	1,7
	Guztira 10	15.204	79,2	Guztira 10	2.236	84,3	Guztira 10	8.630	80,1	Guztira 10	4.648	80,5
	Gainerakoak	3.997	20,8	Gainerakoak	416	15,7	Gainerakoak	2.147	19,9	Gainerakoak	1.124	19,5
	Guztira	19.201	100,0	Guztira	2.652	100,0	Guztira	10.777	100,0	Guztira	5.772	100,0

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Laburbilduz:

- Azken urtean, EAEn bizi diren eta jatorri atzerritarra duten biztanleen kopurua 19.201 pertsonatan handitu da; guztira 241.193 pertsona dira, EAEko biztanleria osoaren % 10,9.
- 2020ko datuek erakusten dutenez, aurreko urteetako goranzko joera finkatzen ari da, EAEko datu ekonomikoak hobetzearekin bat.
- Azken urtean iritsi diren pertsona guztietatik (19.201) gehienak Latinoamerikako herrialderen batekoak dira (% 72,5), eta horien erdiak baino zertxobait gehiago emakumeak dira (% 57,8). Latinoamerikako herrialdeez gain, azpimarratzekoa da Maroko: EAEra etorritakoen % 12,7.
- Lurralde historikoen arabera, aurreko urteetako goranzko joerak bere horretan jarraitzen du. Araban, Kolonbia, Maroko eta Venezuela dira orain ere jatorriko herrialde nagusiak. Bizkaian ere, kolonbiar, nikaraguar eta marokoar jatorrikoen kopuruak handitu dira gehien. Azkenik, Gipuzkoan, Nikaraguatik etorritakoen kopurua handitu da gehien, eta haren ondoren daude Kolonbia eta Maroko.
- Esan beharra dago datu horiek osasun-larrialdiaren aurreko egoera erakusten dutela. Izan ere, larrialdia dela eta, mugak itxi egin dira, eta pertsonen joan-etorria geldiarazi egin da, bai Europar Batasuneko herrialdeen artean, bai hirugarren herrialdeen artean. Hori dela eta, pentsatzekoa da hurrengo datu-eguneraketetan joerak bestelakoak izango direla, migrazio-dinamikak aldatzearen ondorioz.

EAE 2020	241.193 atzerritar jatorriko pertsona	EAEko biztanleriaren %10,9

Fluxuak gorantz		
2020	↑ 19.201 pertsona ↑	Azken hamarkadako hazkunderik handiena

Gehien hazi diren jatorriak	
Latinoamerikar gehiengoa %72,5	Kolombia, Nikaragua, Maroko, Venezuela

Gehien hazi diren jatorriak lurralde historikoka		
Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Kolonbia	Kolonbia	Nikaragua
Maroko	Nikaragua	Kolonbia
Venezuela	Maroko	Maroko
Peru	Venezuela	Honduras